


NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso de:
IÑAKI AZKUNE MENDIA

Suplemento 21-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
2015



Julián Serrano, Garikoitz Mendizabal, Juan Bautista Mendizabal,
Iñaki Azkune, Fernando Txueka



Julián Serrano, Garikoitz Mendizabal, Juan Bautista Mendizabal,
Iñaki Azkune, Fernando Txueka



Julián Serrano, Iñaki Azkune, Juan Bautista Mendizabal

**XVI. MENDE HASIERAKO
BIDAIARI ZESTOARRAK**

Lección de Ingreso en la
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

Hizlaria:
IÑAKI AZKUNE MENDIA

Palacio Intsausti Jauregia (Azkoitia)
2014-09-27

Eguerdi on guztioi:

Pertsonen bizialdia eta ekintzak jakineko garai eta lekuetan gertatzen direnez gero, guk XVI. mendearen hasiera eta Zestoak gaur egun duen lurraldean jatorria izandako bidaiariak aukeratu ditugu. Duela 500 urte Arroako parrokiak hartzen zituen lurrak Debako parte ziren, eta halaxe iraun zuten 1852. urtera arte, baina Bedua bere etxe nagusi eta maiorazkoak zituen baserri, San Lorenteko ermita osoa, lur, baso eta ondasunak 1470. urteaz gero Zestoako parte ziren¹.

Garai hartako jendea, dena den, ez zen apeta hutsez bidaiara joaten, batez ere bizibidea ateratzera baizik. Ederki adierazi zuen egoera hori Pedro Mari Otaño zizurkildarrak Argentinara abiatzekoa zenean:

*Amerikara nua
nere borondatez,
aspertu naizelako
hemengo suertez.
Honetara ezkerro
joan behar det nahi tez.
Hemen gelditu diranak
ondo bizi bitez².*

Hau da, neurri handi batean norberaren egoera ekonomikoak bultzatzen zuen (eta bultzatzen du) bidaiaria atzerrirantz. Horregatik lehenbizi orain 500 urte Zestoako jendeak bizitzeko zer lanbide eta eginkizun zituen labur adieraziko dugu, eta gero emango dugu Pedro Mari Otaño bezala Ameriketara (edo Indietara) edo beste zenbait lekutara joandako zenbait zestoarren berri.

ELIZA

Aizarnako elizak erretorea zeukan, eta Zestoakoak bikarioa. Gainera bi parroketan beste sei apaiz benefiziadu zeuden. Parrokia bakoitzean beste bizpahiru serora ere baziren. Arroako parrokiak (parrokia bakarra zen orduan) ere bere bikarioa eta benefiziadua zituen, serorez gain. Santa Engraziako eta San Lorenteko ermitek ere serora bana zuten. Gainera eliza bakoitzak bi administratzaile izaten zituen.

Eliz jendea parroketan bildutako hamarren eta hasikin edo primizietatik bizi zen, baina hamarrenak eta hasikinak baserrietan baino ez ziren jasotzen. Merkatariek, marinelek, ofiziotakoek, burdinolatakoek eta gainerako langileek ez zituzten ordaintzen.

Zestoako elizgizonak kexu ziren; izan ere, apaiz benefiziadu bakoitzak urtean guztira urrezko 6 dukat ere ez omen zituen irabazten. Ondorioz, bertako apaizek beste lan batzuetan ere ibiltzen omen ziren, arrantza-sareak eginez edo zuhaitz-mintegiak (batez ere sagar-mintegiak) ustiatuz.

Zestoako apaiz benefiziadu izan zen Joan Ierroa 1506. urteaz gero, eta 1511. urteaz gero bikario. Eskola eduki zuen bertako mutikoei irakurtzen eta idazten erakusteko. Esteban Aisoro 1514. urteaz gero izan zen Zestoako bikario, eta hark ere bere eskola eduki zuen³.

Bestalde, Zestoako eta Aizarnako parroketan gutxi gorabehera 300 auzotar (hau da, 300 familia) biltzen omen ziren³, eta Arroako parrokiakoak kontuan harturik, garai hartan Zestoan 2.000 pertsona inguru bizi zirela esan daiteke.

KONTZEJUA

Zestoako Kontzejuak ere bere jendea biltzen zuen. Alkatea, fiel errejidorea, zinegotzia, probestua, basozainak eta eskribauak zituen (erroldako bi eskribau gutxienez). San Migel egu-

nean urtero izaten zen kargu-aldaketa, eta urte batean alkatea Zestoako hiribildu edo ingurukoa bazen, hurrengoan Aizarnakoa izaten zen.

Horrez gain, Orio, Zarautz, Getaria eta Zestoak ermandadebarrutia osatzen zuten, eta ermandade-alkatea zuen. Bi urtez Getariakoa izaten zen ermandade-alkatea, eta ondoren urtebetez Zestoakoa. Horrela txandakatzen ziren.

BURDINOLAK

Zestoako burdinoletara burdin mea guztia Bizkaiko Muskiztik edo ingurutik itsasoz Beduaraino ekartzen zuten, eta gero lehorretik iristen zen burdinola bakoitzera. Burdinolan egurikatzen suaz baliatuta, zepa kendu eta burdinazko agoa edo masa gori biguna gabiaz kolpatuta barrak ateratzen zituzten.


Burdinola batzuek ondoan “olatxoa” zuten, hau da, burdinolan lortutako barrak berriz landuta burdina mehetzeko lantegia. Burdina mehea gero errementariak landuta tresnak, iltzeak, ferrak, etab. egiten zituzten.

Hauek ziren orain 500 urte inguru Zestoan zeuden burdinolak eta olatxoak, denak ere erreken edo Legazpi (Urola) ibaiaren ondoan kokatuak, ur-jauziaz baliatzearen:

1. Bedamakoa.
2. Altzolarats jauregiko ola (Aiako partean).
3. Bekola.
4. Txiribogakoa.
5. Edarritzagagoenekoa.
6. Olaberri.
7. Edarritzagabarrenekoa.
8. Lasaakoa (gero bere Olatxoa izan zuen).
9. Lilikoa (oraingo Olalden eta olatxoa Lilibearen).

Burdinolak

1. Bedama
2. Altzolaras
3. Bekola
4. Txiriboga
5. Edarritzaga-goenekoa
6. Olaberri
7. Edarritzaga-barrenekoa
8. Lasao (olatxoa)
9. Lili (olatxoa)
10. Iraeta (olatxoa)
11. Arroakola
12. Narruondo



10. Iraetakoa bere olatxoarekin (oraingo Xantana).

11. Arroakola (ondoan Errementari zuela).

12. Narruondokoa.13. Azkaetakoa.

14. Arroakolakoa

15. Akertzakoa.

16. Narruondokoa.

Beste bi burdinola ere izan ziren Zestoan XV. mendean, Gesalagan eta Urbieta aldeko Ezkilaburren, baina XVI. mende hasierarako geldirik zeuden.

Kontuan hartu behar da burdinolan olagizonek lan egiten zutela, eta hauek gutxienez lau izaren ziren: ielea edo ijzlea, hau da, barrak luzatzeaz arduratzen zena (tiratzailea), bi urtzaile (sutegiaz arduratzen zirenak) eta gatzemaile edo laguntzailea⁴.

Burdinolek inguruan ere jarduera ekonomiko ugari sorrazten zuten: ikazkintza, lehengaien eta salgaien garraioa (leho-rrean eta itsasoan), merkataritza, hauspogintza, zurgintza, har-gintza, etab.

IKAZKINTZA, BASOGINTZA

Ikazkintzatik eta basotik ateratzen zuten beste zestoar ba-tzuek bizibidea. Egur-ikatz burdinolatarako egiten zen txondo-rretan mendian, eta basoetatik ateratako oholak zurgintzan edo ontzigitzan Legazpi edo oraingo Urola ibaiaren ertzean zeuden ontzioletan erabiltzen ziren.

Zestoako ikazkintzaz aipamen ugari egiten da garai hartako agirietan. Bekola, Indo, Sastarrain, Ezkurroa, Artzegi, etab. aipatzen dira, eta Zestoako Kontzejuak bere basoetako egurra ere saltzen zuen ikazkintzarako.

Basoak Zestoako lurretan ugari ziren, hariztiak batez ere. Besteak beste ontzigitzarako oholak ateratzen zituzten bertatik. Aizarnako Aranobaso, Bekolako basoa, Agiretakoa, Pagal-dekoa, Zornotza ondokoa, Sastarrain aldekoa, Lili aldekoa, Indo-koa eta beste hainbat zegoen Zestoako lurretan.

Beduan, Bekolan, Arroako Zabalierrekan, Pagion eta beste zenbait basotan oholak egin zituztela diote orduko agiriek.


Aldi berean, basoberritzeko mintegien aipamenak ere ba-daude. Besteak beste Iraetako etxe ondoan, Pagion, Urtarainen eta Bekolan zituzten mintegiak.

ERROTAK

Zestoan, egia esan, garai hartan ez zen herrian behar adina gari eta ale egiten. Arteen Indietatik artoa ez zen Zestoara iritsi, eta garia, artatxikia, zekalea, garagarra eta oloa egiten ziren bertan, baina garia batez ere.

Errotak

1. Errotabarrena
2. Altzolaras
3. Bekola
4. Ibarrola
5. Urbietea
6. Bengoetxea
7. Txiriboga
8. Lasao
9. Amabiturrieta
10. Lili
11. Aizubia
12. Iraeta
13. Azkaeta
14. Arroakola
15. Akertza
16. Narruondo
17. Edarritzaga-barrena



Garia itsasoz Andaluziatik eta Siziliatik inportatzen zen, baina Arabatik ere bai. Oraindik ere erabiltzen da Gipuzkoako zenbait lekutan ondoko esaera hau, norbait nora joan den galdetzen dutenean eta erantzun nahi ez dugunean:

- *Nora joan da?*

- *Arabara garitara.*

Dena den, alea ehotzeko gutxienez hamazazpi errota zeuden XVI. mendearen hasieran Zestoan, erreken edo Legazpi ibaiaren ondoan. Hona hemen zerrenda:

1. Errotabarrena (Bedaman).
2. Altzolarats jauregikoa.
3. Bekolakoa.
4. Ibarrolakoa (Zornotza ondokoa)
5. Urbietakoa.
6. Bengoetxekoa.
7. Txiribogakoa.
8. Lasakoa.

9. Amabiturrietakoa.
10. Lilikoa.
11. Aizubikoa.
12. Iraetakoa.
13. Azkaetakoa.
14. Arroakolakoa.
15. Akertzakoa.
16. Narruondokoa.
17. Edarritzagabarrenekoa.

BESTE ZENBAIT LANBIDE

Zestoan baziren errotariez, olagizonez, ikazkinez eta base-
rritarrez gain beste zenbait lanbide zutenak. Hauek dira batzuk:
zurginak, harginak, hauspaginak, teilaginak, zapatariak, jostu-
nak, mandazainak, itzainak, dendariak, marinelak, merkatariak,
etab.⁵

BIDAIARIAK

Eta Zestoako jarduera ekonomikoen berri oso labur eman
ondoren, gure herriko garai hartako bidaiarien zenbait xeheta-
sun ematen hasiko gara.

1) **Martin Santxez Martzanakoa** (Beduako jauna) eta **Joan Martzana** aipatuko ditugu lehenbizi, XV. mendearen amaierako pertsonak izan ziren. Martin Santxezek *San Migel* izeneko kara-
bela zuen, eta hura hornitzen Bilbon egindako gastuengatik
auzia zuen bertako Pedro Ibañez Basozabalgoarekin. Auzia
lehenbizi Zestoako alkatearen aurrean izan zen, eta gero Valla-
dolidko Kantzelaritzan.

Dena den, Joan Martzana semea ontzi-maisua zen, eta aipa-
tutako karabela Beduatik Andaluziako Puerto de Santa Mariara
eraman zuen. Han itsasontzia ardoz eta frutaz beteta, Flandesko

konderriko Holandako Medianburgera (edo Middelburgera) joan zen⁶.

2) **Fernando** edo **Hernando Gebarak** (Altzolarats jauregiko jaun merkatariak) bidaia luzeak egin zituen bere bizialdian (gehienak XV. mendaren amaieran). 1488. urtean Valladolidko Kantzelaritzan zen eta salatu egin zuen Zestoako Joan Lopez Amilibikoa eskribaua, agiri faltsuak egin zituelako⁷.

1491. urtean, Fernando Gebarak 180 dukateko zorra egin zien Burgosko Alonso Salamanca eta beste merkatari batzuei, Londresko oihalak hartu zizkielako. Zor hura 1493ko maiatzean Valladolidko Medina del Campoko ferian ordaintzeko obligazio-agirian, besteak beste bere itsasontzia berme gisa eman zuen. Bete-betean zebilen Fernando merkataritzan, eta itsasontzien jabe zen⁸.

Valladolidko Kantzelaritzako 1493. urteko eta hurrengo urteko agiri baten laburpenean Alonso Gebara agertzen da, baina gure ustez oker dago. Fernando Gebara da idatzita egon behar zuena⁹. Fernando Gebararen izenean Londresen Pedro eta Alonso Salamancak Esteban Gemi-ri oihalak erosi, eta gero oihalak eta salgaiak *Santa Maria* itsasontzian Sevillan hartuta Greziara joan zen, edo norbait bidali zuen Sevillatik haiek saltzera. Gero itsasontzia Bizkaira eta Flandesa itzuli zenean, salgaien prezioa ez zion Alonso Salamancari ordaindu, eta auzitan zebilen.

Salgaiak Greziako Axio-ko portura eraman zituen¹⁰. Axio-ko portua baliteke Tesalonika ondoko Axios ibaiartzeko Axioupolis izatea, baina seguruenik Khios uharteko portua izango da,¹¹ hau da, Zeta-bidearen amaiera zen oraingo Turkiako Izmirn hiritik gertu dagoenean.

1494. urtean Fernando Gebarak emazte Elena Lopez Zumaia-koaren dote gisa Lope Fernandez Zumaia-koa aitagarrebak emanda, besteak beste, ondasun hauek jaso zituen: *San Anton* izeneko karabela (urrezko 450 florin balio zituena), eta Zumaia-ko Arranoletako ontzian urrezko 150 florin balio zuen parte¹².

Urte berean Altzolarats jauregiko Fernando Gebarak auzia eduki zuen Bekolako Joan Lopez Altzolaraskoarekin eta honen Jofre eta Pedro semeekin. Fernando Narruondoko portura ontzimaستا egiteko egur handia ari zen eramaten, eta Bekolakoek ezpataz eta lantzaz eragotzi eta mehatxu egin omen zioten¹³. Garbi ikusten da Zestoako lurretan bi itsas portu zeudela: Beduan bata, eta Narruondon bestea.

1495-VI-1ean Arevalotik, Errege Katolikoek Indietan zebilen Kristobal Koloni gutuna bidali zioten, handik Fernando Gebara (seguruenik zestoarra), Bartolome Salzedo, Bernardo veneziarra eta Migel Muntzaratz etxera bidal zitzala aginduz¹⁴.

Fernando Gebara hau ez da nahastu behar Altzolarats jauregikoaren izeba Maria Beltran Gebararen semearekin. Maria Beltran Arrasatera ezkondu zen Martin Bañez Artazubiagakoa-rekin, eta Fernando Gebara Bañez semea eduki zuten, baina 1495. urtean artean delako semea jaio gabe zegoen, geroago frogatuko dugunez.

1496. urtean Fernando Gebara Burgosen zen Errege-kontseiluan. Lukurreria-salaketa egin zuen Zumaiako Martin Arteagaren eta Altzolarasko Lope abadearen aurka¹⁵.

Fernando Gebarak Errege-kontseiluan beste eske bat ere egin zien *Errege Katoliko*i. Gipuzkoan eta Bizkaian armada antolatatu zuten kostaldea zaintzeko, eta Zestoako herriari sei edo zazpi gizon eskatu zizkion korrejidoreak. Eskearen ondorioz, Zestoako soldadu haiek libre geratu ziren¹⁶.

Fernando Gebara Zestoako alkate izan zen 1497. urtean¹⁷, eta 1499. urtean testamentu-zirriborroa egin zuen¹⁸.

1501. urte amaieran Fernando Gebara (gure ustez Altzolarats jauregikoa zen, izatekotan) Egiptorantz abiatu zen Milango Pedro Martir Angleriakoari laguntzera. *Errege Katolikoek* milandarra enbaxadore gisa bidali zuten Alkairora Egiptoko sultanarekin hitz egitera. Esteban Garibai historialariak Egiptora joandakoa Arrasateko Fernando Gebara Bañez zela dio, eta handik ezpata bat ekarri zuela ere bai,¹⁹ baina arrasatearra 1500-1511. urte

bitartean jaioa zen. Bidaia haren gorabeherak zehatz-mehatz Esteban Garibai Zamalloak eman zituen bere “Compendio Historial” lan erraldoian. Alkairoko Piramideak ere ikusi zituzten hara joandakoek²⁰.

Fernando Gebara zestoarra gero Valladoliden San Martingo elizan hobiratu zuten. Dena den, testamentua egin zuenean aita Beltran Ibañez Gebarakoa Getarian bizi zen, eta 1499an bertako alkate zen.

Gebaratarrek hiru makal-hosto dituzte armarrarian, eta Zestoako armarriak ere bai (bi hirukote).

Fernando Gebarak zor handiak utzi zituen, eta hil ondoren Domingo Arrona ontzi-maisua egin zen Altzolarats jauregiko jabe. Domingoren San Joan Arrona semea Fernandoren Juliana Gebara alabarekin ezkondu zen.

3) **Joan Aizarna** zestoarra itsas pilotua zen, eta 1488. urteko agirian aipatzen da lehen aldiz. Ermuko auzotar gisa azaltzen da²¹. Gero Joan Aizarna pilotua Zestoako 1516. urteko agiri batean lekuko gisa azaltzen da²².

Urte berean Zestoako Enekosauztegin egindako Kontzejuan ere bertan zen Joan Aizarna pilotua²³. 1517an Joan Aizarna lekuko izan zen Zestoako Altzolarats jauregian Domingo Arro-nak egindako agiri batean²⁴. 1517-IX-2an Zestoan egindako beste agiri batek dioenez, 1495. urte inguruan Joan Aizarna Napoliko gerran ibili zen Domingo Arrona zestoarraren itsasontzian²⁵.

1521-V-23an, Zestoan, Joan Aizarna pilotua hiru merkatariekin elkartu zen. Joan Aizarna *Santa Maria* itsasontziaren jabe zen, eta aldi berean ontzi-maisu eta pilotu ere bai. Itsasontzia Zumaiako itsasadarrean zegoen, eta burdineriaz beteta merkatariek salgaiak Portugal eta Andaluziara eramateko pleitamentu-kontratua egin zuten Joan Aizarnarekin. Salgaiak Lisboan eta Setubalen deskargatuko zituzten, eta Andaluzian Puerto de Santa Marian ere bai²⁶.

Joan Aizarna Zestoako Osana Erretzabalen senarra eta Domingo eta Maria San Joan Aizarnaren aita zen²⁷.

4) **Otxoa Bedua** ontzi-maisua badakigu Getarian bizi zela, baina jatorriz Zestoako Beduakoa zelako ekarri dugu hona. 1493. urtean auzia zuen Cadizko Puerto de Santa Marian Jacome Domestico genoarrarekin, honek 162.562 marai eta Aragoiko 10 florin zor zizkiolako.

Otxoa Beduak *San Kristobal* izeneko itsasontzia zeukan, eta Jacomok zorra ordaintzeko Irlandan gatza utzi omen zion Otxoari. Gero auzia Sevillara eraman zuten²⁸.

1518. urtean, berriz, Migel Otxoa Beduakoaren berriak azaltzen dira. Ez dakigu lehentxeago aipatutako Otxoa Bedua bera den ala senideren bat den, baina Migel hau Mexikon zebilen Hernan Cortesekin²⁹.

5) **Joan Akoa** morroia 1504. urtean Napolin zebilen. Gonzalo Fernandez de Cordoba *Kapitain Handiak* Pedro Diaz Zumaiakoa Napoliko iparraldean dagoen Capuako gobernadore izendatu zuen 1503. urtean, eta hil egin zen. Haren morroi zen, hain zuzen, Joan Akoa³⁰, zestoarra inola ere.

6) **Jakobo Ipintza** (aita) zestoarra lehen aldiz agirietan 1503. urtean agertzen da. Zestoako Kontzejuko fiel errejidorea zen orduan³¹. Gero 1507-VI-5ean, Napolin testamentua egin zuen. Bere merkataritza-tratuen berri eman zuen, eta, besteak beste, zorrak zituen Zestoako Joan Perez Idiakaizkoarekin (Liliko jaunarekin), Erroman ibili zen Joan Martinez Lilikoa apaizarekin eta beste zenbaitekin.

Jakobo Ipintzak kobratzeko zorrak ere bazituen. Zordun zituen, adibidez, zestoar hauek: Joan Perez Akoakoa (“Mendoza” deitua), Beltran Iraeta, Maria Ortiz Iraetakoa, Frantzisko Ereño (Huelvako Lepe herrian bizi zena) eta Frantziskoren aita, etab.

Jakobok bere testamentu-betearazle Liliko Joan Perez Idiakaizkoa jauna eta honen seme Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa izendatu zituen³².

Garbi dago Liliko jaunak eta izen bereko semeak Napolin (eta batez ere Sizilian) merkataritza-sare finkoa zeukatela.

7) **Joan Perez Idiakaizkoak** (Liliko jaunak), 1507. urtean Donostiako ontzi-jabeei eta ontzi-maisuei maileguak eman zizkien, itsasontziak hornitu eta Irlandara arrantzara legatza harrapatzera joan zitezten³³. Irlandan hegoaldeko Arreselin eta iparraldeko Calabeq izeneko portuetan ibiltzen ziren hemengo arrantza-ontziak. Irlanderaz bigarren portu horri Killybegs edo Na Cealla Beaga deitzen zaio.

Arreselin ondoko arrantzaleku ziren Dursey irla eta lurmuturra (Baoi Behéarra edo Oileán Baoi irlanderaz), Corcaigh konderrian dagoena.

8) **Domingo Ereño** eta **Beltran Iraeta** zestoarrak 1510. urtean Azpeitiko Domingo Ibañez Arrietakoarekin bazkietu egin ziren, Donostiako Sebastian Alkaraetaren *Madalena* itsasontzia prestatu eta Irlandara arrantzara joan ziren. Irlandan ez-ezik, Frantziako erreinuko Larroxelan ere ibili ziren. Diru-kontuetan konpondu ez zirelako, zestoarrek auzia izan zuten azpeitiarrek³⁴.

9) **Pedro Baltzola** ontzi-maisua aipatu behar dugu ondoren. 1510. urtean Indietara atzera-aurrera zebilen, eta zestoarra zelakoan gaude³⁵. Seguru asko Jakobo Ipintzak Napolin egindako testamentuan aipatzen den Pedro Baltzola bera izango da³².

1511. urtean Zestoako Pagio baserria berreskuratu nahi zuelako, Maria Lopez Elorriagakoak auzia ipini zion Pedro Baltzolari. Maria Lopezen **Joan Pagino** semeak orduan 14 urte baino gehiago zituen, eta itsasoz haraindi zebilen³⁶.

1513-IV-16an, Zestoan, Pedro Baltzola lekuko izan zen Santa Engrazian egindako agiri batean³⁷. Geroztik 1524. urtera arte

zenbait agiritan parte hartu zuen Pedro Baltzola zestoarrak. Guretzat interesgarria da ustez 1523. urtean egin zuena. Ahalordea eman zien Maria Martinez Baltzolakoa emazteari, Domingo Lizarrarats aitari eta Fernando Olazabal medikuari. Zestoar hauek Pedoren ondasunak kudeatu egingo zituzten, eta Pedroren izenean testamentua ere egin ahal izango zuten haren seme-alabentzat³⁸. Badirudi Pedro Baltzola bidaiaria luzeren bat egitekoa zela.

10) **Martin Artiga** itsas pilotu zestoarra 1520. urtean Malagan hil zen, eta Maria Perez Larretxekoa alargunak ahalordea eman zion Bergarako Andres Arteagari senar zenaren diruak, arropak eta tresnak Malagatik ekar zitzaizkan³⁹.

11) **Pedro Zumaia** zestoarrak, Txiribogakoak, 1521. urtean testamentua egin zuen Granadan; izan ere, 12 edo 13 urtean

Bedua - Puerto de Santa Maria - Middelburg



Gonzalo Fernandez de Cordoba *Kapitain Handia* zenaren andrea-
ren morroi eta mahaizain izan baitzen hiri hartan⁴⁰.

12) **Fortun Santxez Iraetakoa** (Gipuzkoako artzapez eta Aizarnako eta Urdanetako erretore izan zena), 1522. urtean Erroman zebilen⁴¹. Handik Aita Santuaren buldak ekarri zituen, baina auzia eduki zuen Zestoako Kontzejuarekin, honek Iruñeko apezpikuari bere apaiza aurkezteko eskubidea zuelako.

13) Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta ama Domenja Lili ez ziren herritik kanpo asko ibili, baina ahalordea emanda zenbait pertsona bidaltzen zuten haien izenean eginkizunak egitera.

Joan Perezek, adibidez, 1526. urterako burdinak bidaliak zizkien Siziliara **Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa** anaiari eta **Martin Lizarrarats** zestoarrari⁴².

1529an ere, Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa Sizilian izandako tratu batzuegatik Joan Martinez Malleakoa eibartarrarekin auzitan zebilen⁴³. Garbi ikusten da lilitarrek Sizilian merkataritza-sarea finkatuta zeukatela.

Bestalde, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Domenja Lili amak (Liliko nagusiek) zenbait kobrantza egin behar izaten zuten Burgo-
gosen, Valladoliden edo Toledon, eta lan horretara ahalordea emanda zestoarrak bidaltzen zituzten.

1525. urtean, adibidez, Toledoko Alonso de la Torre jaunak 800 dukat zor zizkion Domenjari, eta **Joan Martinez Lilikoa** apaiz lehengusua joan zen arazo hura bideratzeraz⁴⁴.

1526-II-6an Liliko jaunak (Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak) aha-
lordea eman zion **Domingo Zabala** zestoarrari. Valladolida joan behar zuen Valentzian Joan Perezi igorritako truke-letrarekin, eta bertan adierazitako 742 dukatak Joan Antonio Picolomini, Alfonso Neli eta beste zenbaiti kobratu behar zizkien⁴⁵.

1526-II-7an Domenja Lilik ahalordea eman zion Domingo Zabala zestoarrari. Domenjak Burgosko hiriari urtero 60.000 ma-

rai kobratzeko pribilegioa zuen, eta aurreko urteari zegokion azken zatia kobratuko zuen⁴⁶.

Hurrengo hilean Domingo Zabala Valladolidko Villalon herriko garizumako feriara bidali zuten lilitarrek, Valentzian igorritako truke-letrak kobratzera⁴⁷, eta horrela jarraitu zuten beste urte askoan Medina del Campora, Medina de Riosecora eta beste herri batzuetara kobratzaile zestoarrak bidaliz. **Martin Esteban Makatzaga** izan zen haietako bat.

14) **Joanes Areitzaga, Fernando** (edo **Hernando**) **Gebara Bañez, Joan Iraeta** eta **Joan Etorra** Joan Sebastian Elkanoren bigarren espedizioan.

1518. urtean, Magallaes, munduari bira eman zion espedizioa prestatzen hasi zen. 1519-VIII-19an abiatu zen Sevillatik. Flotaren tripulazioa 234 pertsonak osatu zuten⁴⁸.

Flota osatzen zuten bost itsasontziak hauek ziren: *Trinidad* (ontzi nagusia, 180 upelekoa), *San Antonio* (120 upelekoa), *Concepcion* (90 upelekoa), *Vitoria* (85 upelekoa), eta *Santiago* (75 upelekoa). Joan Sebastian Elkano *Concepcion* itsasontzian abiatu zen, eta beste 18 euskaldun ere joan ziren espedizioan⁴⁹.

1522-IX-6an, espedizioko *Vitoria* ontzi bakarra itzuli zen Cadizko Sanlucar de Barramedara. 18 lagun baino ez ziren bizirik iritsi, mundu osoari lehen aldiz bira emanda. Euskaldunak hauek ziren: Joan Sebastian Elkano, Joan Akurio kontramaisu bermeotarra, Joan Arratia itsasmutil bilbotarra eta Joan Zibileta morroi barakaldarra.

Itsasontzi bakarrean Indietatik 381 zaku “iltze” edo espezia ekarri zituzten (26 tona inguru). Haiak salduta 8.680.555 marai kobratu zituzten. Espedizio osoaren gastuak (bost itsasontzien gastu guztiak sartuta) 8.334.335 maraikoak izan ziren. Beraz, 346.220 maraiko irabaziak izan zituzten⁵⁰.

1525. urtean Karlos V.a enperadoreak beste espedizio bat antolatu zuen. Amerika aldetik Indonesiako Moluketara joango ziren espezia bila. Gartzia Jofre Loaisakoa komendadorea zen

Bedua - Messina



espedizioko buru, eta Joan Sebastian Elkano kapitaina zen bigarren burua, pilotu nagusia eta ontzidiko burua.

1525-III-7an, Valladoliden, Fernando Gebara Bañez arrasatearrak obligazio-agiria egin zuen Otxoa Belez Artazubiagakoa anaiarentzat, eta lekukoetako bi Joan Sebastian Elkano eta Andres Urdaneta izan ziren⁵¹. Egun eta leku berean, Fernando Gebara Bañezek testamentua egin zuen. Orduan 14 eta 25 urte bitarteko adina zuen. Beraz, 1500-1511 urte bitartean jaiotakoa zen⁵². Ondorioz, 1501. urtean Egiptora sultanarekin hitz egitera Alexandriatik igarota Alkairoraino Pedro Martir Angleriakoari laguntzera joandakoa ez zen Fernando Gebara Bañez arrasatearra. Gure iritziz, izatekotan, Fernando Gebara zestoarra izan zen. Zestoarra eta arrasatearra lehengusu propioak ziren; izan ere, zestoarraren aita Beltran Ibañez Gebarakoa (Getariako alkate izan zena) eta arrasatearraren ama Maria Beltran Gebara (Altzolarats jauregikoa) anai-arrebak baitziren.

Egiptoko Alkairoraino joandako Pedro Martir Angleriakoak, gero bidaiaren berri eman zuen bere gutunetan⁵³.

1525-VII-24an abiatu zen A Coruñatik Molukak uharteetarako bigarren espedizioa. Hauek ziren ontzidia osatu zuten zazpi ontziak: 1) *Santa Maria de la Victoria* (300 upelekoa, Gartzia Jofre zeramana); 2) *Sancti Spiritus* (300 upelekoa, Joan Sebastian Elkanoren agindupekoa); 3) *Anunciada* (160 upelekoa, Pedro Vera kapitain zuena); 4) *San Gabriel* (130 upelekoa, Rodrigo Acuña buru zuena); 5) *San Lesmes* karabela (80 upelekoa, Francisco Hoces kapitain zuena); 6) *Santa Maria del Parral* karabela (80 upelekoa (Jorge Manrique Lara-koa buru zuena); eta 7) *Santiago* patatxea (Getariako Santiago Gebara kapitainarena)⁵⁴.

Santiago Gebara Inesa Elkanoren senarra zen, Joan Sebastian Elkanoren koinatua. Jatorriz Zestoako Altzolarats jauregikoa zelakoan gaude. Santiago Gebara 1520-IX-25ean ermandade-alkate zen⁵⁵. Ermandade-barrutia Zestoa, Getaria, Orio eta Zarautzek osatzen zuten. Bi urtez jarraian Getariakoa izaten zen ermandade-alkatea, eta hirugarren urtean Zestoakoa. Gero berriz bi urtez Getariakoa, etab. Oriok eta Zarautzek ez zuten ermandade-alkaterik izendatzen.

Moluketarako bigarren espedizio hartan 450 gizon abiatu ziren, eta euskal jatorrikoak ez ziren gutxi: Andres Urdaneta ordiziarra, Martin Uriarte pilotua, Joanes Areitzaga (Zumaian apaiz zegoena eta jatorriz Arroako Areitzagakoa), Toribio Alonso Salazar (Bizkaiko Enkartaziotakoa, altxorzaina), Martin Somorrosto, Martin “Bizkaitarra”, Bartolome “Bizkaitarra”, Joan “Gorri”, Ortuño Alonso getxotarra (*Santiago* patatxearen pilotua), eta beste zenbait⁵⁶.

Jatorriz zestoarrak ziren Joan Iraeta eta Joan Etorra ere zerrendan sartzekoak dira, geroago frogatuko dugunez; baita *San Gabriel* ontziko Joan Epelola pilotua ere.

Bidaia hartan, gainera, Joan Sebastian Elkanok bere hiru anaia (Anton Martin, Otxoa Martin eta Martin Perez Elkanokoa), Esteban Mutio getariarra eta Martin Iñigez Karkizanokoa elgoibartarra ere eraman zituen⁵⁰.

1524-VII-24an, A Coruñan Joan Sebastian Elkanok imanaturiko iparrorrtzak, mapak eta hornigaiak hartuta, espedizioa abiatu egin zen⁵⁷.

Bidairen berri gero Joanes Areitzaga apaizak eman zuen. Kanarietako Gomera uhartean abuztuaren 8an ziren. Urriaren 15ean San Mateo uhartea zapaldu zuten, Gineako kostatik 9 legoara. Abenduaren 4an Brasilgo lurra ikusi zuten. Abenduaren 28an ekaitza izan eta ontzi nagusiak *Santa Maria de la Victoria*-k, norabidea galdu zuen, Solis ibaiaren parean (hau da, Rio de la Plata ibaiaren parean).

Flotako beste sei ontziak beren bideari jarraitu zitzaizkien, eta gau batean *San Gabriel* ontziak norabidea galdu zuen. Beste bost itsasontziek Hamaika Mila Birjinen lurmuturrean ainguratu ziren, 1526-I-14an⁵⁷.

Bidaian zihoazela, espedizioko buruzagiek, kapitain nagusiarekin batera, arrano-berrugetaren (*Argyrosumus regius*-en) antzeko arraina jan zuten (barrakuda izenekoa, *Sphyaenidae* familiakoa). Hogei librako izokina bezain handia zen arraina, zakur handiak bezalako hortzak zituen.

Barrakuda jan eta toxikatu egin ziren. Triaka (opioa zuen botika) hartu arren, ez ziren sendatu. Ziguateraz kutsatu eta gertatu zitzaiena, maisuki aurkitu eta deskribaturik du Fernando Txueka lagunak⁵⁸.

Geroago, *Santiago* patatxean zihoan Joanes Areitzaga apaizak mota hartako 50 librako arraina harrapatu zuen, baina jan gabe itsasora bota zuten.

1526-I-14an *Sancti Spiritus* itsasontziari aingurek huts egin ziotelako 9 gizon ito ziren. Gainerako itsasontziak Magallaesen itsasartera sartu eta Victoria badian bildu ziren. Ekaitzaren ondorioz *Victoria* itsasontzia kaltetu egin zen. *Anunciada* itsasontziaren arrastoa ere galdu zuten.

Hainbat gorabehera izan ondoren, *Santiago* patatxeak norabidea galdu egin zuen. Orduan Santiago Gebara kapitainak pentsatu zuenez, beste 2.000 legoa egin behar zituzten Moluke-

tarainoko bidean, baina janari gutxi zeukaten. Beraz, Ozeano Barean Mexikoren hegoaldera joatea erabaki zuten. *Victoria*, *Santa Maria del Parral* eta *San Lesmes* itsasontziek Moluketarako bi-deari ekin zioten⁵⁷.

1526-VI-26an, Ozeano Barean, *Victoria* itsasontzian Moluketarako bidean Joan Sebastian Elkanok testamentua egin zuen. Argi eta garbi ikusten da, oso urrun egon arren, batez ere sorterriaz eta sorterriko familia eta senideez oso arduratuta zebilela. Ezaguna da Zestoako Santa Engrazia ermitari testamentuan Joan Sebastianek dukat bat utzi ziola.

Horrez gain, *Santiago* patatxeko Joan Iraeta marinela aipatzen du. Joaneke A Coruñatik irteterako 4 dukat maileguz eman zizkion Joan Sebastiani, eta haiek ordaintzea agindu zuen testamentuan⁵⁹.


1526-IX-11n, Moluketarako bidean, *Victoria* itsasontzian, Bizkaiko Enkartaziotako Toribio Alonso Salazar altxorzainak testamentua egin zuen. Joan Sebastian Elkano bezala, ziguateraz kutsatuta hil zen.

1526-IX-20an, *Victoria* itsasontzian, Toribio Alonso Salazar zenaren arropa eta tresneriaren enkantea egin zen. Enkantean zenbait euskaldunek parte hartu zuen. Haietako bat Joan Etorra tripulatzailea zen, eta Toribio zenaren giltzarra bat lau errealean erosi zuen⁶⁰. Joan Etorra baliteke Zestoan Enekosauztegin 1516-IV-16an Kontzeju irekian parte hartutako Joan Etorra bera izatea⁶¹.

1526-I-14an, *Santiago* patatxean Magallaes itsasartean zebilela, beste kide batzuekin Joanes Areitzagak harremanak izan zituen Patagoniako biztanle erraldoiekin. Urte batzuk geroago Gonzalo Fernandez de Oviedo jaunari Valladoliden araukariarren bizimoduaren berri eman zion. Patagoniarrei euskaraz egiten omen zien Joanesek, agian ulertuko ziotelakoan. 1500. urte inguruan jaiotakoa omen zen Joanes Areitzaga.

1526. urteko uztailean Mexiko hegoaldeko Oaxaca aldera heldu ziren, eta Hernan Cortesek izendaturiko gobernadorea-

Joan Sebastian Elkanoren Moluketarako bigarren espedizioa



rekin harremanak izan zituzten. Gobernadoreak Cortesengana 375 legoara zegoen Mexiko hiriburura joan zedila iradoki zion Santiago Gebara kapitainari. Santiago ordea, oso gaixo zegoen, eta Joanes Areitzaga apaiza joan zen hiriburura Tehuantepecetik uztailaren 31n abiatuta. Hernan Cortesek oso ongi hartu zuen Joanes, eta hau Ozeano Atlantikotik etxera itzuli zen⁶².

Joanes Areitzaga apaizari soldataren kontura 5.000 marai ordaintzeko agindua eman zuten 1528-II-2an Burgosen. Beraz, Joanes apaiza 1528. urte hasierarako etxera itzulia zen. Joan Epelola pilotuari (Oikiako Epelola baserrikoa zelakoan gaude) soldataren kontura 15.000 marai eman zizkioten. *San Gabriel* itsasontzian joan zen, eta ordaintzeko zedula erregeak Burgosen 1527-X-26an eman zuen⁶³.

Joanes Areitzaga apaiza, Santiago Gebararen lehengusua, Zumaiako eta Zestoako zenbait agiritan azaltzen da, gehienetan lekuko gisa bada ere. 1523-XII-17an, adibidez, Joan Arantza eta Katalina Etzuri (oraingo Etxubi) ezkondu zituen. Katalina, hain zuzen, Grazia Olearen alaba zen, Arroakolako, hau da, Areitzaga

etxetik oso gertukoa⁶⁴. Garai hartan hiru Areitzaga zeuden Arroan: Areitzagagoiena, Areitzaga Zelaia eta Areitzaga Joandomingo.

1528-III-24an, Zumaian, Maria Joango Arteagak Zestoako Joan Beltran Iraetari obligazio-agiria eman zion, eta lekukoetako bat Joanes Areitzaga apaiza izan zen. Letra garbiz sinatu zuen apaizak, agirikoa baino lerro lodixeagoaz. Badirudi apaizak bere lumaz sinatu zuela⁶⁵.

1529-XII-24an, Zumaiaiko Paskuala Urangak testamentua egin zuen, eta lekukoetako bat Joanes Areitzaga izan zen⁶⁶.

1532-V-2an, Zumaian, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauarekin Joanes Areitzaga eta Maria Areitzaga arreba elkartu ziren. Zestoako Sebastian Artazubiagarekin burdin tratua egin zuten⁶⁷.

1532-I-3an, Zumaian, Blas Artazubiagak egindako agirian Joan Olaberrieta azpeitiarrak 36 dukat Zumaiaiko Maria Otxoa Sasiolakoari (Joanes Areitzagaren amari) utzi zizkion. Diru hura gero Maria Otxoa amak eta Joanes semeak Joan Bergararen zamaontzikoei emango zieten⁶⁸.

Ondoren Joanes Areitzagak Zumaiaiko zenbait agiritan lekuko gisa sinatu zuen: 1534-XII-14an, 1536-V-5ean, 1536-V-13an, 1537-XI-18an eta abarretan⁶⁹. Gutxienez 1542. urtera arte azaltzen da Joanes agirietan⁷⁰.

Aipatu izan da Joanes Areitzaga Urretxuko “Areitzaga baroi-koa” etxekoa zela, baina Jose Artetxe historialari azpeitiar zena-ekin bat gatoz, Zumaian eta itsasoan hain urrun ibilitakoa jatorriz arroarra zela esanda.

Hain zuzen, 1540-VIII-10ean Zestoako San Lorenten Arroako Joan Perez Areitzagagoienekoak Joanes Olazabali emandako obligazio-agirian Joanes Areitzaga apaiza izan zen lekukoetako bat⁶⁸. Senideren bat izango zen seguruenik. 1541-III-28an ere Zumaian parte hartu zuen lekuko gisa agiri batean, eta bertan sinatu ere egin zuen⁶⁹.

Adierazi beharra dago 1535-III-1eko errege-agiri baten bidez Joanes Areitzagari 20 dukat ordaintzeko agindua eman zutela⁷¹.

Andres Urdaneta ordiziarrak urte hartantxe negoziatu zuen portugaldarrekin Moluketan bere itzulera, eta 1535-II-15ean ekin zion etxerako bideari. Munduari bira osoa eman zion.

Fernando Gebara Bañez arrasatearrak badakigu 1531-I-21ean Moluketako Zamafo izeneko lekuan, lehengoz gain, beste testamentu bat egin zuela⁷².

Hainbat zestoar orain 500 bat urte urrun ibili zen itsasoz, kantu ezagunak dioen bezala:

*Boga, boga, marinela,
marinela,
joan behar dugu urrutira,
urrutira,
bai, Indietara,
bai, Indietara.*

Eta lehorrean geratu den amari, urruti dabilen semea gogoan, pentsamendu hau sortu zaio:

*Beti duzu desio
etxe ukatua,
zaldi hegalarien
kima uhinkatua,
itsas labarretako
ahots urratua,
zatozkit aterpera,
enara unatua.*

Une berean bururatu zaio semeari ama adintsua. Haren irudia du gogoan:

*Gaueko izotzetan
sakon izurtua,
arrosa-aurpegi zuri
hitzez limurtua,
hosto lehen hezea
txeraz zimurtua,
galdategiko arrago
ta burdinurtua,
zure begiko malko
lurrin bihurtua.*

Es Kerrak eman nahi dizkiet ikasgai hau prestatzeko era batera edo bestera lagundu didaten guztiei. Fernando Txueka lagunari, nola ez, eman didan hainbat argibidegatik, eta ikasgai hau bereziki Jesus Martinez Pina lagun zenari eskaintzen diot, besteak beste paleografiaren arloan hainbeste irakatsi zidalako.

Gaur hemen ikasgaia edo lekzioa irakurri egin dugu. “Leción” hitzaren adiera bat erdaraz horixe baita, acción de leer. Guk irakurri edo “leer” egin dugu, baina ez gara “leher eginda” geratu; oso atsegina izan baita saio hau.

Mila esker guztioi.

OHARRAK

- ¹ AZKUNE MENDIA, I. Zestoaren mugak historian zehar. Amabirjinak. Zestoa, 2008. (z/g).
- ² DORRONSORO, J. Bertsotan 189-1936. Donostia, 1981. (155. or.).
- ³ Azpeitiko Udal Artxiboa. Organos de Gobierno. Autoridades supramunicipales. Corregimiento. Procesos 1249-09. (12, 14, 18, 29, 31, 35, 36, 42, 57, 63, 70, 88, 92, 121. or.).
- ⁴ MOGEL, J. A. Peru Abarka. Itxaropena argit. Zarautz, 1956. (121. or.).

- ⁵ Orain arte Zestoako lanbide eta jarduera ekonomikoetarako buruzko datuak, egilearen argitaratu gabeko bi libururatu hauetatik jasotzen dira: *I ZESTOA MENDETAN ZEHAR (Historiaurretik 1500. urtera arte)* eta *II ZESTOA XVI. MENDEAN (1501-1520)* liburuetatik.
- ⁶ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias 23/1. (8. or.).
- ⁷ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias 13/13. (1. or.).
- ⁸ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias 77/4. (3. or.).
- ⁹ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Escribanía, Lapuerta. Pleitos fenecidos. 1564/2 L 317.
- ¹⁰ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias. 77/4. (11-13. or.).
- ¹¹ RONQUILLO RUBIO, M. Los vascos en Sevilla y su tierra durante los siglos XIII, XIV y XV. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 2004. (224. or.).
- ¹² Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zaranzona y Balboa. Pleitos olvidados. 1015/7. (21. or.).
- ¹³ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias. 80/10. (2, 3. or.).
- ¹⁴ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (513. or.).
- ¹⁵ Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1496. (1-3. or.).
- ¹⁶ Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1496. 133. folioa. (1-3. or.).
- ¹⁷ AIERBE IRIBAR, M. R. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. Archivo Municipal de Zestoia (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 136. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. 40. agiria. (164-166. or.).

- ¹⁸ Zabala Etxeko Artxiboa. Donostia. Fondo de la Casa de Zavala. Sección 1. Zavala. Alzolaras. Transmisión de bienes, 17.28. (2-22. or.).
- ¹⁹ GARIBAI ZALLALLOA, E. Memorias de Garibai. Memorial Histórico Español: Colección de documentos, opúsculos y antigüedades que publica la Real Academia de la Historia. Tomo VII. Imprenta de José Rodríguez. Madrid, 1834. (48, 49. or.). (Fernando Gebara Bañez arrasatearra 1500-1511 bitartean jaioa zen, eta ezinezkoa da 1501-1502. urteetan Alkairora bidaia egin zuena izatea. 1525. urteko agirien bidez frogatuko dugu hori.).
- ²⁰ GARIBAI ZAMALLOA, E. Compendio Historial de las Chronicas y Universal Historia ... Bartzelonan Sebastian Cormellas-ek inprimatua. 1628. 2. alea. XIX. liburua. 12 eta 13. kapituluak. (709-712. or.).
- ²¹ Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. I. 1488. 149. folioa. (1-3. or.).
- ²² Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 105; 2/001605 paper sorta. (50i folioa).
- ²³ Ibidem (61a folioa).
- ²⁴ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 90; 2/001606 paper sorta. (19a folioa).
- ²⁵ Ibidem (31a folioa).
- ²⁶ Ibidem (84a-85a folioak).
- ²⁷ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 254; 2/001608 paper sorta. (172a folioa).
- ²⁸ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorias. 62/36. (1-31. or.).
- ²⁹ ERENTXUN ONZALO, J. Apellidos Blasonados. Enciclopedia Guipuzcoana. 5, 6, 7. faszikuluak. Donostia, 1965. (211. or.).

- ³⁰ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zumaia-ko eskribautza. Eskribaua: Joan Arbestain. Foliazioa: 2/003289 paper sorta. (43a folioa).
- ³¹ Lilitarren Artxiboa. Donostiako San Telmo Museoa. 22. paper sorta. (1. or.).
- ³² Ibidem 21. paper sorta. (1-10. or.).
- ³³ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Quevedo. Pleitos depositados. 193/10. (22-44. or.).
- ³⁴ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Taboada. Pleitos olvidados. 1137/10.(22-44. or.).
- ³⁵ BERMUDEZ PLATA, C. Catálogo de pasajeros a Indias, durante los siglos XVI, XVII y XVIII. Volúmen I (1509-1534). Consejo Superior de Investigaciones Científicas. “Instituto Gonzalo Fernández de Oviedo”. Imprenta Editorial de la Gaidia. Sevilla, 1940. (515. or.).
- ³⁶ Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. Korrejimendua. Zibilak. Mendiola. COMCI 4 (24-27. or.).
- ³⁷ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zaran-dona y Balboa. Pleitos olvidados. 2420/1. (440, 441. or.).
- ³⁸ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 202; 2/001607 paper sorta. (24a, 24i folioa).
- ³⁹ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 90; 2/001606 paper sorta. (68a-70i folioak).
- ⁴⁰ Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Alonso Rodriguez. Pleitos fenecidos. 3550/3. (138-143. or.).
- ⁴¹ San Miliango Markesaren Artxiboa. Donostiako udaletxea. 105. kutxa: 1902. Sección pleitos. (1-16. or.).
- ⁴² Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 202; 2/001607 paper sorta. (210a, 210i folioa).

- ⁴³ Lilitarren Artxiboa. Donostiako San Telmo Museoa. 49. paper sorta. [49.4]. (36-37. or.).
- ⁴⁴ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 202; 2/001607 paper sorta. (103a folioa).
- ⁴⁵ Ibidem (120a folioa).
- ⁴⁶ Ibidem (120i folioa).
- ⁴⁷ Ibidem (128a folioa).
- ⁴⁸ Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. Signatura: PATRONATO, 37, R.30. Fecha de creación: 1538-VII-20 (-).
- ⁴⁹ Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. Signatura: INDIFERENTE, 1525, N. 1. Fecha de creación: 1521-X-1 (-).
- ⁵⁰ ARTETXE, J. Elcano. Espasa Calpe, S. A. argit. Colección Austral, 1504. Madril, 1972. (31, 172, 173, 197-200. or.).
- ⁵¹ Euskaltzaindia. Bilbo. Azkue Biblioteka. Juan Carlos Guerra fondoa. ABA-JCG-4187. (1, 2. or.).
- ⁵² Ibidem ABA-JCG-4188. (1-3. or.).
- ⁵³ MARTIR DE ANGLERIA, P. Documentos inéditos para la Historia de España. IX. alea. Epistolario. Estudios y traducción de José López de Toro. Madril 1953. II. alea. (232-238 gutunak. 3-14. or.).
- ⁵⁴ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. IV. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1971. (151, 152. or.).
- ⁵⁵ AZKONA, T. San Sebastián y la Provincia de Guipúzcoa durante la Guerra de las Comunidades (1520-1521). Donostia, 1988. (70. or.).
- ⁵⁶ Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. PATRONATO, 37, R. 8. Fecha de creación: 1538-VII-20 /-.
- ⁵⁷ Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. PATRONATO, 37, R. 19. Fecha de creación: 1526/-, (1-4. or.).

- ⁵⁸ TXUEKA ISASTI, F. *Joan Sebastian Elcano, Getariako talaiatik*, in *Nuevos Extractos. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte - RSBAP*. Donostia, 2013. (181-204. or.).
- ⁵⁹ *Indietako Artxibo Nagusia*. Sevilla. PATRONATO, 38, R. 1. Fecha de creación: 1526/-. (14-27. or.).
- ⁶⁰ *Indietako Artxibo Nagusia*. Sevilla. PATRONATO, 39, R. 10. Fecha de creación: 1543/-.
- ⁶¹ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 105; 2/001605 paper sorta. (95a folioa).
- ⁶² FERNANDEZ DE OVIEDO, G. *Historia General y Natural de las Indias, islas y tierra del mar Océano*. José Amador de los Ríos-el 1851-55 bitartean argitaratua. Bigarren zatiko lehen alea, XX. liburua. (39-45, 48, 50-56, 62. or.).
- ⁶³ *Indietako Artxibo Nagusia*. Sevilla. PATRONATO, 37, R. 8. Fecha de creación: 1538-VII-20/-. (103, 104. or.).
- ⁶⁴ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zumaia-ko eskribautza. Eskribaua: Joan Arbestain. Foliazioa: 41; 2/003283 paper sorta. (24a-25a folioak).
- ⁶⁵ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zumaia-ko eskribautza. Eskribaua: Joan Arbestain. 2/003289 paper sorta. (8a folioa).
- ⁶⁶ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 211; 2/001609 paper sorta. (144a-145i folioak).
- ⁶⁷ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zestoako eskribautza. Eskribaua: Blas Artazubiaga. Foliazioa: 222; 2/001610 paper sorta. (170a-170i folioa).
- ⁶⁸ *Ibidem* (136a folioa).
- ⁶⁹ *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zumaia-ko eskribautza. Eskribaua: Joan Arbestain. Foliazioa: 28; 2/003291 paper sorta. (3a, 14i-16i folioak).

- ⁷⁰ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa. Oñati. Zumaia-ko eskribautza. Eskribaua: Joan Arbestain. Foliazioa: 45; 2/003290 paper sorta. (12i folioa).
- ⁷¹ Indietako Artxibo Nagusia. Sevilla. Signatura: INDIFERENTE, 422, L. 16, F.. 172-172v.
- ⁷² Euskaltzaindia. Bilbo. Azkue Biblioteka. Juan Carlos Guerra fondoa. ABA-JCG-4189. (1-4. or.).

XVI. MENDE HASIERAKO BIDAIARI ZESTOARRAK (Viajeros zestoarras de comienzos del siglo XVI)

(Resumen)

En esta lección de ingreso se aportan al principio ciertos datos sobre las actividades económicas más relevantes de Zestoa a comienzos del siglo XVI.

En las parroquias de Aizarna, Zestoa y Arroa había 10 clérigos, además de las freiras. El vicario de Zestoa tenía escuela para enseñar a leer y escribir a los muchachos.

El concejo de Zestoa tenía su alcalde ordinario, fiel regidor, jurados, oficiales, escribano fiel, etc. y cada tres años nombraba el alcalde de la hermandad.

Una actividad importante era la siderurgia. En lo que hoy día es término municipal de Zestoa, había 12 ferrerías mayores, de ellas 3 con su ferrería menor. En ella trabajaban los ferrones y generaban trabajo a mercaderes, transportistas (de vena, hierro labrado y carbón), marinos, carboneros, barquineros, canteros, carpinteros, etc.

De los bosques sacaban tablas para los astilleros y se producía en ellos el carbón vegetal.

La actividad agropecuaria de los caseríos tenía su relativa importancia, y para moler el grano producido e importado había 16 molinos.

En este contexto algunos de los viajeros zestoarras a destacar son los siguientes:

1) Martín Sánchez de Marzana (señor de Bedua) y su hijo Joan Marzana. Este último viajó con su nao al Puerto de Santa María y a Middelburg en Holanda.

2) Fernando Guevara, señor de Alzolaras de suso, mercader, que viajó a Sevilla, Grecia y El Cairo, a este último destino con el diplomático Pedro Martir de Anglería.

3) Joan Aizarna, piloto de Zestoa, que con su nao viajó por Lisboa, Setubal, Puerto de Santa María, etc.

4) Otxoa Bedua, que vivió en Getaria. Marino que viajó al Puerto de Santa Maria con su nao.

5) Joan Akoa que anduvo en Capua al servicio de Pedro Díaz de Zumaia.

6) Jacobo Ipintza, muerto en Nápoles el 1507.

7) Joan Perez de Idiacaiz, que financiaba a maestros de nao para ir a pescar a Irlanda.

8) Domingo Ereño y Beltran Iraeta, que se dedicaron a la pesca, con viajes a Irlanda, La Rochelle, etc.

9) Pedro Balzola, que hacía el viaje de ida y regreso a las Indias desde el 1510.

10) Martín Artiga, piloto muerto en Málaga el 1520.

11) Pedro Zumaia, natural de la casa de Txiriboga, que testó el 1521 en Granada.

12) Fortún Sánchez de Iraeta, arcipreste, que el 1522 andaba en la curia romana.

13) Martín Pérez de Idiacaiz-Lili y Martín Lizarraras, que moraban en Sicilia.

14) Joanes de Areizaga, Joan Iraeta, Joan Etorra y Fernando Guevara Bañez, que fueron en la segunda expedición a las Molucas de Joan Sebastián Elcano y García Jofre de Loaisa.

HARRERA HITZAK

Fernando Txueka Isasti

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko adiskide numerarioa

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendari jauna, Gipuzkoako lehendakari jauna .

Adiskideak.

Iñaki Azkunereren etxekoak eta lagunak.

Intsaustira hurbildu zareten zestoar eta gainerako entzuleei... Ongi etorri!

Agur On: bereziki, Iñaki Azkunereren senide arteko den eta Adiskide berria dugun Garikoitz Mendizabal jaunari eta bere familiari

Egun on guztioi!

... ibilbide guztiak etxera itzultzeko baino ez dira

Iñaki Azkune Mendia jaunak Harrera Hitzak egitea eskatu zidanean, ardura, zirrara, eta hunkipen berezia sentitu nuen. Gaur, zuen aurrean, eskerrak emateaz gainera, gonbite hau jaso izana niretzat plazera eta ohore handi bat dela ere, aitortu behar dut. Ohore eta plazerra, azken urte hauetan bidelagun hurbila izan baitut Iñaki Azkune.

San Migel bezperetan gaude eta egun seinalatua da zestoarentzat eta Euskal Herriarentzat. Azkune jaunak Euskalerrriaren Adiskideen Elkartera sartzeko, ez du egun hau oharkabean hau-

tatu: udazkeneko ekinozioak atea irekitzean, azken urtaroari hastapena emanez, urteroko zikloa betetzen du, Mircea Eliadek “*betiko itzuleraren mitoa*”n esan bezala. Etzi, hilaren 29an, euskal jatorri zaharreko jendeak Aralarako santutegian abestuko dute... *Mikel, Mikel Gurea, gorde, zaindu, Euskal Herria*, berrituz gure herriko sinbolo zaharraren edukia eta gogoraraziz gizarte literal eta lineal honetan ez dela itzali oraino, antzinako oroimen magikoa.

Urtero San Migel egunez izaten zen, hain zuzen, Zestoako kontzejuaren kargu-aldaketa eta urteetako usadio hori gogoan, gaur berritze hura bizi du Iñaki Azkunek.

San Migel ondorengo ilberan mozten ziren herri basoetako haritz landuak, itsasontzien hezurdurak eraikitzeko. Hori mendeetan ontzioletako euskal teknika zaharra izan da, basoak bakarrik ez baitziren zaintzen, zuhaitzak landu egiten ziren, itsasontzien egituren arabera.

Gaur Iñaki Azkunek, bere sarrera Ikasgaiari, itsasoaren ataka hori ere zabaldu digu, XVI. mende hasierako Bidaiari Zestoarrez hitzeginez.

Zestoar haien eta gainerako euskaldunen ibilbideek itsasoari begira bere unibertsaltasuna zabaldu zuten mendeetan.

Itsasoa izan da euskaldunentzako mundurako leihua eta bizibidea. Euskaldunen presentzia nabarmena eta nagusi izan zen XIIIgarren mendetik ia XVIIIgarren mende amaiera arte, Atlantiko eta Mediterraneoko itsas ertzean hasieran eta gero Ameriketara.

Mende luzeetan euskaldunek itsasgintza eta merkataritzarako “*interland*” zabala eratu zuten, amarauma gisan munduan zehar: Genua, Mallorca, Sizilian, Nantes, Amberes, London, Lisbona, Potosi, Mexiko eta abar. Egun Euskal-etxeak bezala, *kontsulatu, itsas-pilotuen kolegio edo kofradietan* elkartu eta antolatu zituzten beraien bizibideak eta interesak. Hor ditugu, esaterako, Cadizko “*Colegio de pilotos vizcainos*” edo Brujas hiriko kontratazio etxea “*Domus Cantabrica*”, beraien euskal legegizon, apaiz eta sendagileekin. Beraien elizak zituzten eta zendutakoan han hilobiratuak ziren Euskal Herriko lurrian baleude bezala“.. y

quiero que me entierren bajo la boveda de la Nacion Bascongada que es de las cuatro provincias” irakurri dugu azken borondate baten testigutzan... eta gehienetan hegoaldeko lau probintziak elkarrekin azaltzen dira, Cadizen bezala, beren armarrriak elizaren lau gangetan margotuta.

Gure Herri honek, izango al du itsasorako bizibiderik gabe etorkizunean , bere oroimenaren mira?

Ternuako epika ixil hura ere hor daukagu, hondoratua zegoena apika azaleratzen ari dena... Hitzez eta kantuz jasoak dira euskal mariñelen kantutegian... Hona Iñaki Azkunek ere nola oroitzen duen, berak idatzitako «Marinel galduaren balada»n, Benito Lertxundik musikatu eta abestua:

*Karabela
Eder kresal gainetan,
Dagoela
Haize-hegaletan,
Begi ninietan.
Hi hintzela
Ontzi-belan
Maite hindudan eta,
Marinela
Hago uhinetan,
Ene ametsetan*

Iraganik gabeko orainaldirik ez dagoenez, izan garenaren ezagutza nahitaezko baldintza dugu gaur nor eta zer garen aitortzeko. Azkune jaunak ahalegin honen testigantza utzi du bere ibilbide oparoan, eta bereziki, urteetako ikerketaren emaitza den lan honetan: *Zestoa Mendetan Zehar: Historiaurretik 1500. urtera arte.*

Zestoar bidegile honek Euskal Herriko eta Gipuzkoako historiaren bilketa eta ikerketa-lan oparoa egin du, Antzinarotik Goi Erdi Aroraino, eta testuinguru horretan kokatzen digu Zes-

toaren sorrera eta izana. Urteetan jarduera astunetan murgildu eta hemengo eta kanpoko hainbat agiritegi arakatu ditu. Iturrietara jo du, eta hamaika eskuizkribu aztertu ditu zorrotzasunez eta zientifikotasunez, beti erakutsi digun moduan.

«*Ez dakienak zer bilatu nahi duen, aurkitzen duena ez du ulertuko*», esan ohi da, eta Iñaki Azkunek ondo daki hori. Bere Zestoa maitea, errotik eta benetan ezagutzeko, beste herri, zientzia eta kultura unibertsalaren jakin-mina izan duela, bere biografia luze eta zabalak erakusten du. Egiazkotzat jo daiteke, *bere herria besterik ezagutzen ez duenak, ez duela benetan bere herria ezagutzen*. Hitza hizkietatik osatzen den gisan, lan historiko erraldoi honetan banandua dagoena biltzen eta argia zabaltzen irakatsi digu. Lan hau Erdi Aroko hargin-maisuek euren eraikuntza nagusiak eraikitzen zituztenen antzera jaso du, eta guztia sostengatzen duen gangaren giltzarria bere ezkutuko zigiluarekin zizelkatu digu. Obra horrekin ereduaren ataka ireki du ikertzaile nekaezin, fin, zorrotz eta zehatz honek. Badakit hau zutzutean, honela errepikatuko ligukeela oraintxe, jakintsuen zuhurtziaz eta apaltasunez: *Baina nik letreiatzen besterik ez zekiat!*

Aspalditik hasi zen Iñaki Azkune sorterriko oroitzapenetara itzuli eta idatziak herriari eskaintzen. 1975. urtetik Zestoako jai nagusietarako bertako historiari buruzko idazlana urtero presatatu du. 1989. urtean, berriz, Zestoako Bainuetxearen historiari zuzendutako ikerlana egin zuen.

Gizakion historia haurtzaroko eta gaztaroko memorian hedatzen dela esan ohi da, eta ororen gainetik gure jatorri xumea maite dugula goraiatzeko dugu. Gurea delako herriaren izaera, berea dugulako gure oroimena. Séneca pentsalariak zioena gogora ekarriz: *Nehork ez du maite bere sorterria handia delako, berea duelako baizik*.

Azkunek berea du, halaxe, zezenen mundua eta bera jarri zen Euskal Herriko historiako plazaren erdian: Joxe Azurmendiren hitzaurreaz argitaratu zuen *Zezenak Euskal Herrian* liburu mardula.

Hizkuntza eta bizitza eman zioten gurasoei eskainitako ikerlan honetan, hiztegia eta aurkibide toponomastikoa ere erantsi zituen.

Zure hitzetan oroitu baduzu ere, Iñaki, *ezin naiz ni ere* gogora ekarri gabe gelditu Jesus Martinez Pina, paleografian hainbat erakutsi zizun laguna. Lastima berriki azaldutako Elkanoren gutunaren transkripzioa ikusi ez izana. Zein gizon sotil, jakintsu eta duntsua, Jesús Martinez, Ataungo amak On José Migel Barandiarani aholkatzen zion erakoa: *izan sagarrondo bezala, zenbat eta beteago orduan eta apalagoa.*

Zure parekoa, Iñaki!

Apaltasun horretan, zalapartarik atera gabe, hainbat isilpeko lan egin da Iñaki Azkune, eta bere eskuzabaltasunaren dohain paregabez, zenbaiti ez ote dio laguntza eskaini eta eman! Bakarkako eta isilpeko lanetan ez ezik, elkarlanean ere hainbat lan egin ditu eta egiten dihardu. Elkarrekin aurkeztu genuen, esaterako, Iruñean, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarrean, *Nafarroaren konkistako eskuizkribua eta Nafarroa Behereko oinetxeen izenak.*

Euskal Herriko eta bere sorterriko historia ez ezik, euskara bera ere aztergai izan du Azkune Jaunak.

Ikasketaz industria injineru teknikoa, hiztegi gintzan ere aritu da, eta UZEIk eta Elhuyarrek argitaratutako zenbait hiztegitan parte hartu du. Baina, bere 40 urteko ibilbidean, irakasle lanetan ere jardun du. Laurogeiko hamarkadaz geroztik, bere bizibidea Elhuyar Kultur Elkarte eta Fundazioari lotua egon da.

Hainbat eta hainbat artikulu ere argitaratu ditu. Horiez gain, beste zenbait liburu idatzi eta euskaratu ditu.

Osotasunean, Errenazimentuko gizona dirudi Azkune jaunak. Unibertsaltasun eta jakintza entziklopedikoa duen humanista eta euskaldun zaharra dugu. Iturri zaharreko euskararen ezaguera berezkoa duen gizona. Hizkuntza kontuetan ez ezik, bistan da historian, pentsamenduan, zientzian, teknologian eta beste hainbat arlotan ere jakituna dela.

Maite ditu poesia, musika, bertsoak, eta trikiti-doinuak ere. Eta bere zaletasun eta sormenaren fruitu dira, izkiriatu dituen hainbat poesia ere. “*Hatsaren Poesia*” eta gure elkarteko den “*Egan*” aldizkarian, han nola bere barne gogoeta isilak erakusten dizkigun, poesiako lerroetan tolestuak. *Berregindako Bidea* poeman honela esaten du:

*Ilunpeko ilgora
Bidaia galduan,
Ez daiteke albora
Norbere guduan,
Unibertso-hondora
Orenen buruan,
Espazio-denbora
Biltzen den puntuan.*
(maisú sufi baten poema metafisikoa dela dirudi)

Baskongadaren 250garren urteurrena ospatzen dugun urte honetan, berritu eta gogoratu nahi genuke gure herri honek frankismoaren garai ilunetako zurubi luze eta tristean, euskal kulturako hainbat emakume eta gizonek Elkartea honen izarapean lege-estalpea eta babes intelektuala jaso zutela. Besteen artean, Egan aldizkaria oraino gure adarra dena, Munibe aldizkaria eta Aranzadi Elkartea, eta baita Azkune jaunak bere biziko ibilbide intelektual eta profesionala izan duen Elhuyar Elkartea eta aldizkaria ere.

Elhuyar aipatu dugu, eta Elhuyar Elkartea sortu zeneko hogeita bost urteurreneko ibilbidea gogoratzean, honela irakurri dugu: (...) *Taldeak lege aldetik behar zuen babesa Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak eman zion eta geroxeago argitaratzen hasitako “Elhuyar” aldizkaria ere Elkartea horren adar gisa plazaratu zen. Eskertzekoa da garai hartan Alvaro del Valle Lersundi jauna lehendakaria zela Adiskideen Elkarteak Elhuyar taldeari emandako laguntza. Taldeak aldizkariari “Elhuyar” izena ipini zion, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Bergaran zuen Erret Mintegiko laborategian Fausto Fermin*

eta Joan Jose Elhuyar anaiek, wolframioa deitu zioten elementu kimikoa munduan lehen aldiz isolatu zutelako (...).

Hara Zestoako gure bidaiaria! Kavafis-en poemetan bezala, ostantzeko argitasunez jantzia... Ibilbide luzearen ostean, hasierako jatorrira itzuli zara, iturri zaharreko portura, 250 urte bete dituen Baskongadara. Erromesen kantuak dioen bezala,

...eta ibilbide guztiak etxera itzultzeko baino ez dira.

Eskerrik asko, Iñaki, urak bere bidea egin dezan egindako lanarengatik eta oraindik egiteko duzunarengatik.

Zorionak, lagun eta adiskide zaren horri!

Ongi Etorri Euskaljerriaren Adiskideen Elkartera!